

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Alkatearen 2019ko ekainaren 26ko dekretua, zeinen bitartez trafikoaren alorrean zigorrak jartzeko ahalmena María Angeles Gutiérrez Ondarza zinegotzi andrearen gain uzten baita**

Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen 127.1 l) artikuluan, Tokiko Gobernu Batzarraren gain uzten du zigortzeko ahalmena, salbu eta legeak besteren gain utzia duenean.

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onetsi zeneko urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikulua alkateei aitortzen die hiriko kaleetan egindako zirkulazio arau-hausteak zigortzeko ahalmena, eta orobat ematen die aukera ahalmen hori besteren gain uzteko, aplikagarri den legediaren arabera.

Horrenbestez, hauxe xedatu dut:

Lehen. Tokiko Gobernu Batzarreko kide den María Ángeles Gutiérrez Ondarza zinegotzi andrearen esku uztea trafikoaren alorreko zigortzeko ahalmena.

Azken xedapena. Datoren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn eta Udalaren web-orrian zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 26an

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*